

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Alkateordeak eta zinegotzi ordezkariak izendatzea

Honen bidez jakinarazten da Alkateak uztailaren 4ko 184/2019 Dekretu bidez ondokoa ebatzi duela:

LEHENENGOA. Silvano Garcia Arteaga zinegotzi jauna udaleko lehenengo alkateorde izendatzea. Izendapen horrek gaurtik aurrera izango du eragina, eta alkateorde horrek gai horri buruz indarrean dauden arauak aitortzen dizkieten eginkizunak eta eskumenak izango ditu.

BIGARRENA. Iñigo Perea Gil zinegotzi jauna udaleko bigarren alkateorde izendatzea. Izendapen horrek gaurtik aurrera izango du eragina, eta alkateorde horrek gai horri buruz indarrean dauden arauak aitortzen dizkieten eginkizunak eta eskumenak izango ditu.

HIRUGARRENA. Alkate kargua hutsik badago edo alkatea ez badago edo gaixorik badago, indarrean den legediak alkateari aitortzen dizkion ahalmen eta eskumenak, batez ere, ordainketak eta banku txkeak baimentzea, alkateordearen eskumena izango da.

LAUGARRENA. Horretarako, alkatea udalerritik kanpo egon behar duenean, dekretuz ezarriko du absentziaren iraupena eta noiz hartuko dituen lehenengo alkateordeak, eta hura egon ezean bigarren alkateordeak, alkatearen eskumenak.

Izendapen hori berariaz egiten ez bada, horiek ordezkatzeko dute alkatea.

BOSGARRENA. Eskuordetza orokorrak ezartzea ondoko zinegotziei:

- Kultura eta Turismo Saila: Francisco Javier Gil Orive zinegotzi jauna.
- Gazteria, Kirola, Hezkuntza eta Jaiak: Silvano Garcia Arteaga jauna, lehen alkateordea.
- Nekazaritza eta Ingurumen Saila: Iñigo Perea Gil jauna, bigarren alkateordea.
- Gatzaga Buradongo eremua eta Euskara: Iraia San Ildefonso Ircio andrea.

SEIGARRENA. Eskuordetutako eginkizun orokorren barruan sartzen dena da eskuordetutako arloari dagozkion ekintzak aztertu eta proposatzea. Azken erabakia eta erabaki hori betearaztea udal organo erabakitzaileen ardura izango da, hau da, udalbatzarena ala alkatearena, egoeraren arabera. Hau da, ez dute hirugarren bati eragiten dioten administrazio egintza bidez ebazteko ahalmenik.

ZAZPIGARRENA. Koordinazioa. Hona hemen Gatzaga Buradon arloaren eskuordetze hau eta gainerako eskuordetzeak, denak iraunkorrak, koordinatzeko bidea:

Gatzaga Buradongo zinegotzi ordezkariak eginkizun orokorren eskuordetzea duten zinegotziei egiten ari denaren berri emango die, hala egin behar baldin badu, bere lana aurrera eramanez ahal izateko.

Eginkizun orokorren eskuordetzea duten zinegotziek ahalmena dute Gatzaga Buradongo zinegotzi ordezkaria zehatz-mehatz zer lan egiten ari den jakiteko.

Gatzaga Buradongo zinegotzi ordezkaria eta eskuordetze orokorren titularra bat ez badatoz edo haien artean arazo edo gatazkarik sortzen bada, alkateak ebatziko ditu haiek. (2568/1986 Errege Dekretuaren, toki erakundearen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenaren, 222. artikulua).

ZORTZIGARRENA. Lehenengo eta bigarren alkateordeari dekretu honen berri ematea, eta jakinaraztea, alkateak jakin egin behar duela nola baliatu dituzten eskuordetutako ahalmenak. Ezin izango du alkateak jada eskuordetutako eginkizunik aldatu, ez eta eginkizun berririk eman ere.

BEDERATZIGARRENA. Ebazpen honen berri udalbatzari jakinaraziko zaio lehenengo bileran eta ebazpena ALHAOn argitaratuko da, baina ebazpenak sinatu eta hurrengo egunetik izango ditu ondorioak.

HAMARGARRENA. Ebazpen hau eragindako zinegotziei jakinaraztea, ahalmenen eskuordetzea ordezkariak onartu behar duela adieraziz. Dena dela, eskuordetza isilbidez onartutzat emango da erabakia jakinarazten denetik kontatzen hasita hiru egunean ordezkariak ez badio alkateari berariaz adierazten ez duela eskuordetzea onartzen.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta haren aurka ondoko errekurtsioak jar daitezke:

a) Aukerako berraztertze errekurtsioa alkateari. Horretarako, hilabete dago, honako ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 52. artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. artikuluekin eta hurrengoekin lotuta).

b) Administrazioarekiko auzi errekurtsioa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren aurrean. Horretarako bi hilabete izango dira, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Berraztertze errekurtsio alde aurreko eta aukerakoa jarri eta ebazpen espresa ematen bada, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasiko da kontatzen bi hilabeteko epea. Ebazpen espresik ematen ez bada, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea 6 hilabetekoa da, aukerako berraztertze errekurtsioa ustez ezetsi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenaren, 8.1, 46.1 eta 46.4. artikulua).

Bastida, 2019ko uztailaren 4a

Alkatea

LAURA PEREZ BORINAGA